


## Millauko zubian partaide

Stern enpresak hartu du parte ▶ 6



# Tolosako VII. San Silvestre-Elkartasun Krosa aurkeztu dute

**ELKARLANA** ▶ Hilaren 31n izango da Samaniego-Orixek antolatuta, Igarondo eta Udalaren laguntzaz ▶ 4



Igarondo, Udala eta Samaniego-Orixeko ordezkariak atzoko prentsaurrekoan. LEIRE MONTES



## Hamar talderen idatziari erantzun dio Udalak

**IBARRA** ▶ Herriak ez duela hau merezi dio; ekimen hauen atzetik «asmo politikoa» ikusten du Udal Gobernu Taldeak ▶ 3

**ARESO** ▶

## Udal laguntzak kirola eta hezkuntzarako ▶ 7

**TOLOSALDEA** ▶

**Esperientzia ikusgarria eta erabat desberdina**

Saharan izan direnen iritziak HITZAn ▶ 2

**TOLOSA** ▶

**Automobilismoa, bela eta kiroldegi berria, Kirol Astean hizpide**

Hilaren 20tik 23ra izango da; urteko kirolari onenak sarituko dituzte ▶ 5

**EGUBERRIETAN ALDE ZAHARREAN IRABAZTEN ATERAKO ZARA**

Zatoz kanpaina honetako dendetara eta 3.000 euroko erosketa-txeke baten zozketan parte hartzeko aukera izango duzu. Horretaz gain, deskontu-saritan beste 3.000 euro banatu behar ditugunez, 30 eurorainoko deskontua irabaz dezakezu.

SAHARA (V) ▶



# Bisitan joandakoentzat esperientzia ikusgarria eta imajinaezina izan da

Estreinakoz Saharako errefuxiatu kanpamenduetan izan dira bisitan Tolosaldeko hainbat lagun; kolpe handia izan da askorentzat, baina errepikatzeko gogoz itzuli dira euren etxeetara

IÑIGO TERRADILLOS/  
DCHERA (SAHARA)

**E**skualdean hainbat eta hainbat izaten dira udan Saharako neskato edo mutiko bat hartzen dutenak. Hauekin bi hilabate egon ostean, abenduko zubian eta Aste Santuetako oporraldiko egunetan bisitan joateko aukera izaten dute Saharara haurra nola dagoen ikustera eta honen familia ezagutzera.

Izan ere, eskualdeko hainbat udalek, Euskal Herriko beste hainbatek bezala, laguntzak ematen dituzte haur hauek beraien lurretatik ekartzeko. Horrela, uda baino lehen deialdia luzatzen zaie herritarrei eta aukera eman gaztetxo bat etxean bi hilabetez hartzeko.

Hona etortzen diren haurrek esperientzia oso ona izaten dute; beste errealidade bat gertutik ikusi, gaztelania eta euskara ikasi...Eta baita haur hori hartzen duen familiak ere, asko ikasten baita kultura desberdineko jendearrekin.

Gainera, gehienek izaten dute gogoa haurra udan etxe-



Gregorio Eizagirre bere alaba, iloba eta lagunarekin. I.TERRADILLOS

an izan eta gero Saharara bisitan joateko eta euren begiez bertako familiaren bizimodua ezagutzeko.

## Esperientzia berezia

Abenduko zubian Tolosaldeko Saharara 13 lagun joan ziren beraien familiari bisitan.

Hauetatik askorentzat lehen-dabiziko aldia zen eta guztiak ere esperientzia oso ona, baina gogorra izan dela eta errepikatze gogoz etorri dira etxera.

Horrela izan da Lara Lizarribar berastegiarrarentzat; orain lau urte mutiko bat hartzea erabaki zuten etxean eta mutikoak ederki pasa zuela ikusita errepikatu nahi izan zuten, baina ez zen posible izan mutiko berarekin. Hurrengo urtean neskato bat hartzea animatu ziren eta bi urtez jarraian etorri da udan Berastegira.

«Haurrak ez daki hemengo hizkuntza eta lehen egunak oso gogorak egite zaizkio», dio berastegiarrak. Lizarriba-



Lara Lizarribar berastegiarra. I.T.

rrek bere egonaldia buruz «oso esperientzia ona izan dela, ikusgarria izan dela eta etxean bezala sentitu dela, familiakoa bezala» aipatzen du. Hurrengo udan haurra hartzeko asmoa duela ere aipatu du eta abenduan berriro ere bisitan joateko asmoa duela.

Bestalde, Gregorio Eizagirre Elixabet eta Amaier bere bi alabekin Yolanda ilobarekin eta Izaskun Etxeberria lagunarekin izan da Saharan lehendabiziko aldiz egun hauetan. Bi urte

daramatza haur bera etxean hartzen. Berarentzat «sekularo aldaketa izan da eta ikusi arte ezin da imajinatu». «Oso irekiak dira hasieratik eta dena ematen dizute, eta hain gauza gutxiarekin posible dela zoriontsu bizitzea ikasten duzu beraiengatik», dio Saharan izan eta gero.

Izaskun Etxeberriarentzat ere estreinako aldia izan da. «Golpe handia da, desertu erdian bizi baitzara eta ez da inolako berderik ikusten», dio. «Hango haurrak nola ibiltzen diren eta gureak ikusi alde handia dago», gehitzen du. Bestalde, «datorren udan haur bat etxean hartzeko asmoa dut posible bada behintzat eta ni ere berriro hara joateko irrikaz nago», azaldu dio Izaskun Etxeberriak Hrzari.

Hemendik hara joandakoen iritziak eta gogoetak oso antzekoak dira, jende adeitsua dela eta asko dagoela haiengatik ikasteko diote.

Esperientzia polita izateaz gain, laguntza bat eskaintzeko modua da, haur hauei gure etxeetako ateak zabalduz.

JOXE MANUEL AGIRRE ETA MAITE ZIPITRIA ▶ TOLOSALDEA SAHARAREKIN ELKARTEKO KIDEAK



I.TERRADILLOS

## «Haurra etortzean hango egoera hobeto ezagutzen hasten zara»

Joxe Manuel Agirre Tolosaldeko Sahararekin elkarteko koordinatzaileak eta Maite Zipitria bere emazte eta elkarteko kideak lau urte daramatzate udan Saharako neskato bera hartuz. Zazpi urte zituen lehenengo urtean eta zituen hainbat osasun arazo hartatzea lortu dute urteak pasa ahala. **Haurrentzako ona al da hona etortzea?**

Oso ona da beraiantzat haur ezagutzea; Leku desberdinak ikusten dituzte, jende berria ezagutu eta horiekin erlazionatu... Gaztelaniaz hitz egiten eta euskara ulertzen ikasi du gureak. Gustura egoten dira, baina azken egunetarako bueltatzeko gogoa ere izaten dute, beraien familiarekin egoteko. Hala ere, gu bere bigarren familia gara beretzat eta

guretzat ere etxekoa bezala da.

### Zertan aldatu da zuen bizitza azken lau urteetan?

Haurra etortzean hango egoera hobeto ezagutzen hasten zara, gehiago informatu nahi duzulako. Gure kasuan haurra lehenengoz etorri eta bueltan joan zenean elkarte bat sortzea erabaki genuen saharar herriari gehiago laguntzeko asmoarekin. Gainera, Saharan izan garen lau urteetan egoera aldatu eta hobetuz joan dela ere nabaritu dugu eta asko pozten gara, baina asko dago bertan egiteko oraindik eta horretarako jendearan laguntza beharrezkoa da. Bestalde, beraien lurrarekin duten gatazka konpontzea da beraien-tzat garrantzitsua.

### iragarki laburrak ▶

#### SALGAI

**Altzariak.** Garbigailu berria eta sukalde bitrozeramika labearrekin daude salgai. Deitu 639 567159 zenbakira.  
**Soinu ekipoa.** Soinu ekipu osoa

salgai. Argibideetarako deitu: 943 674806 edo 943 117738 telefono zenbakietara.

#### LANA

**Zaintzailea.** Pertsona bat behar da lau orduz esne behi ikuitu batean

lanean aritzeko. Beharrezkoa izango da autoa eta esperientzia izatea.

Deitu 665 733356 telefono zenbakira.

**Ettxe lanak.** Emakume bat behar da etxeko lanak egiteko eta haurrak

zaintzeko, Tolosan. Goizetan deitu: 661 212837 telefono zenbakira.

**Sukaldaria.** Tabernarako sukaldaria behar da asteburutan lan egiteko.

Deitu 943 691933 telefono zenbakira.

GUTUN@K 

izena eta herria adierazi; HITZak gutunak mozteko eskubidea du

## Etorkizuna eraikitzea zoragarria delako

Hilaren 18an [gaur] Leidorren *Orain herria, orain bakea* proposamena aurkeztuko dela esan berri didate. Ilusio handiz hartu dugu albiste hau, Euskal Herriarentzat hain esanguratsua eta indartsua izan den proposamen batek herriz herri eta auzoz auzo aurkeztua izatea merezi duelako, are gehiago, proposamenaren oinarria gu geu garenean, euskal herritarrok. Geuk sortu eta geuk eguneroko lanaz aurrera aterako dugun proposamena daukagu eskuarte; Euskal Herriaren etorkizuna ziurtatuko duen proposamena. Ez al da ba zoragarria etorkizuna eraikitzen ari garela sentitzea?

Proposamen hau ez da ez kasualitatez mahaigaineratu. Lan

handia egin du ezker abertzaleak azken 26 urteetan puntu honetara iritsi eta behingoz gure herriari etorkizun duin bat ziurtatzeko bidean izateko. Ez dugu gezurrik esango, oraindik ere badugu zergatik borrokatu, inoiz baino indar handiagoz, bizi dugun gatazka politikoa hau behingoz amaitzeko aukerak argiak direlako.

Baina arriskuak ere nabariak dira. Orain 26 urte argi genuen hura ez zela bidea, eta *demokrazian* jaio omen garenek, argi daukagu zer ekarri diguten estatuak, amejoramenduak eta gure herria zatikatzen duten neurri guztiak: errepresioa, atxiloketak, torturak, ilegalizazioak, mehatxuak, erahilketak, espetxea... Horregatik, berriz ere eta lehen baino ozenago esan behar dugu Euskal Herriaren eta euskal herritarren hitzaren errespetuan oinarritzen ez diren bideak, gatazkarren eta sufrimenduaren luzatzea besterik ez dutela ekarriko.

Gure herriaren biziraupena daukagu jokoan. Garaia da beraz, interes partidistak alboratu eta Euskal Herriaren alde jartzeko, Euskal Herriak irabaz dezan. Behin entzun nion norbaiti esaten, Euskal Herriaren lagunei ohorezko aureskua dantzatzenez ondo dakigula, baina baita etsaiei ezpatadantza dantzatzenez ere.

Ezker abertzaleak proposamen hau mahaigaineratu eta bide honetan amaieraraino joateko konpromisoa hartu du. Bejondeigula! Proiektu politiko guztiak defendatu ahal izango diren eszenetoki berri bat eraikitzeko premia bizian daukagu gure herri mai-tea. Ekin diezaiozun lanari!

Pasa den azaroaren 14an ezin izan genuen Belodromora joan, baina hantxe, zuekin, sentitu ginen. 18an [gaur] berriz, Leidorren imaginatuko zaituztet borroka eder honi bultzadaxoa ematen, patioari ehunka buelta ematen dizkiogun bitartean.

Orain gure esku dago Euskal Herriaren etorkizuna, langileen esku, ikasleen esku, langabeziaren esku, emakumeen esku, ikasleen esku, langabetuen esku, emakumeen esku, gizonezkoen esku, gazteen eta ez hain gazteen esku, kalean aske eta kartzelan aske jarraitzen dugunon esku. Ez diezaiozun gure etorkizunari hutsik egin.

Belodromoan izan zinetenak proposamenaren garrantzia zein den jakin badakizuelako, eta egon ez zinetenak, merezi duela. Guztiok izango gara ezinbesteko 18an! Ez ahaztu.

EIDER IJURKO (EUSKAL PRESO POLITIKOAK CURTIS-KO ESPETXEAN) ▶ IBARRA

## Orain herria orain bakea

Eskutitz honen bidez dei egiten diet Tolosako herritarrei, gure Herriaren askatasun nahia senti-

zen duten herritarrei, eta baita gure borrokarri irtenbide justua ematearen alde dauden herritarrei ere, larunbatean [gaur], Leidor zineman, 19:00etan, aurkeztuko den proposamena ezagutzera joan daitezten.

Egoera berri baten aurrean gaude denok, baldintza politikoa aldatu dira, eta agian momentu berezi batera ari gara hurbiltzen. Agian gatazkaren konponbidearena.

Eta ezin dugu kale egin. Ezin dugu aukera hau galdu. Lagun askoren sufrimendua jokoan baitago. Sufrimendua eta ilusioa. Urte luzeetakoa. Eta gure Herriaren etorkizun librea.

Honek eskatzen du denok mugitzea, baina batez ere gu mugitzea, zeren gu mugitzea besteok mugiaraziko diegu.

Nagiak astindu eta ekin diezaiozun bideari.

EDORTA AGIRRE MAULEON (PRESO OHIA) ▶ TOLOSA

## AMEZKETA ▶ GAZTERIA

### Kontzertuak, Gazte Taldeak antolatuta

Urtero legez, Inuxente Egurenaren inguruan Gazte Taldeak antolatzen duen kontzertu gaua bihar izango da *Aldana ingoa* lelopean, martxoaren 27an antolatutakoa bezala. Ez dute «ikaragarriko kontzertu gau baten helburupean» egiten, musika talde gazteei aukera berriak emateko, «gazteok geure bitartekoen bide» herriko kultur hutsuena betetzen joateko eta «ahal duguna egiteko» gai direla erakusteko baizik. Egitaraua 18:00etan hasiko da, aurtengo Talai dantza eta festetako bideoa emanaz gela polibalentean. 19:30ean poteoa hasiko da plazan Iñan-



Ezein taldea. GALTZAUNDI

ki eta Erbete trikitilariekin. 20:30ean zagisagardoa izango da pilotalekuan eta jarraian, 22:30ean, kontzertuak Jo ttakun, Ezein, Izeba Pilarren ilobak eta Ameba taldeekin.

## BALIARRAIN ▶

### Gabonetan abesteko entsegua, gaur

Abenduaren 24ean abesten ateratzeko entsegua egingo dute gaur 21:00etan Kultur Gelan. Ondoren 2005eko jaiak antolatzen hasiko den batzordea aukeratzeko dute; Jai Batzordearen aldaketa izango da. .

## MOBILIZAZIOA ▶

### Barañoingoa ekitaldira joateko autobusa

Bihar, 12:00etan, Barañoingoa udal plazan sakabanaketak hildako Karmele Solagurenaren aldeko nazio ekitaldira joateko autobusa antolatuko du Etxerat-ek. Tolosako Triangulotik 10:30ean aterako da autobusa. .

## IBARRA ▶ UDALA

# Ibarrak ez duela hau merezi dio Udalak

Hamar taldek banatutako idatziari erantzun dio Gobernu Taldeak; guztiaren atzetik «asmo politikoa» ikusten du

## ERREDAKZIOA

Udal Gobernu Taldeak «ahalik eta era errespetuzkoenean» erantzun nahi izan die azken egunetan herriko hamar talde hauek banatutako idatziari: Festa Batzordea, Hauspoa, Alurr, Gazte Asanblada, Txosna Batzordea, Denak taberna futbol taldea, Garagardo Festa-ko Batzordea, Haitzetanraju, Langostino moto festa eta Eneko Aritzaren lagunak.

Fiskalizazioaz ari direnean talde horiek zertaz ari diren jakin nahiko lukeela dio Gobernu Taldeak. «Udalak diru laguntzak ematen baditu fakturak edo azalpenak eskatu gabe, jakin ezazue gero Udalak Euskal Ogasunari aurkeztu behar dizkiola faktura horiek», dio.

Garagardo Festa «irabazteko asmoarekin egindako feria bat



Consuelo Rubio alkatea. HITZA

delako» 1.000 euroko abala eskatu diela antolatzaileei azaltzen du Udalak, «bertan jasotzen den diruak helburu guztiak pribatuak ditu», erantsiz. «Gastu bereziak dituen pertsona edo familia bakoitzak diru publikoarekin feriak antolatuko balitu, zera esan behar da: Ibarrak ez du hau merezi», adierazi du Rubio alkateak.

«Manipulatzeari esker harrotu egiten direnak», «konbentzitzeko gezurretan aritzen direnak» eta «Udalarekin arazoak daudela esateko arazoak sortu nahi dituztenak» orer daudela diote.

Udalak ideiak «oso argi» dituela eta talde hauei «ez diela ezertxo ere kenduko» diote, «baina legediaren barruan beharrezkoak ikusten dituen azalpenak eta fakturak eskatzen» jarraituko duela erantsen du. Horrek ez omen du esan behar «harreman txarrrak» izan behar dituztenik, baina arazoak sortzen dituztela esatea, «kritikatuko eta akusatuko izateak» honen guztia-aren atzetik «beste asmo politiko bat dagoela kulturaren eta beste abarren izena erabiliz» pentsarazten dio Udal Gobernu Taldeari.

## ESKERTZA ▶

HILARIO UZCUDUN CORTAJARENA jaun hil berriaren sendeen partetik, eskerrak samin agurra bidali zenuten eta hiletan elizkizunetara etorri zineten guztioi.

Tolosa, 2004ko abenduaren 18a

NATURAL - NATURALAK




BASERRIKO PRODUKTUAK

Mahala baserria - 20491 LEABURU • Tel.-Faxa: 943 673 499 • Tel. Mug.: 689 805 633

- Era naturalean eginak
- Gaztak, yogurtak, txorizoko urdaiazpikoak, odolkiak eta beste hainbat produktu.

NAGUSIA, 28  
TEL.: 943 69 06 89  
20150 VILLABONA



GAZTE MODA  
ETA OSAGIAK



## Euskalgintzako iritzien inguruan

**EUSKALGINTZA** ▶ Joxe Manuel Odriozola altzotarrak *Euskalgintzako hainbat iritzi* mintegia eskaini zuen herenegun iluntzean. Jendearen parte-hartzea bultzatu nahi izan zuen idazleak: udaletxeko batzar aretoan elkartu zirenek euskalgintzaren inguruko zenbait iritzi aztertzeko eta proposamenak egiteko aukera izan zuten. L. MONTES

## Estatutu politiko berria hizpide

**POLITIKA** ▶ Uzturre Fundazioak antolatuta, EAJko Gipuzku Buru Batzarreko lehendakari Joseba Egibarrek eta Eusko legebiltzarkide Elixabete Piñolek *Estatutu politiko berria* hitzaldia eskaini zuten herenegun, Kultur Etxean. «Gogoeta sustatzea» zuen helburu ekimenak. Kanpoak, zenbait herritarrek salaketa egin zuten *Egibar, lapurra. Herriaren hitza errespetatu* zioen pankarta eskutan. L. MONTES

### KIROLA ▶

LEIRE MONTES

«Kirola eginez festa honetan murgil daitezen gonbidatu nahi ditugu herritarrek». Jende guztia «parte hartzera» deituz aurkeztu zuten, atzo, VII. San Silvestre-Elkartasun Krosa. Hilaren 31n korrituko da. Iaz bezala, Samaniego-Orixe ikastetxeko Kirol Eskolak antolatu du, beste laguntzile batzuekin batera; besteak beste, Tolosako Udala, Tolosa hiri komertziala, Igarondo merkatarien elkartea eta Tolosa CF.

Jende guztiaren parte-hartzea bultzatzeko, umeez eta gazteez gain, nagusiek ere krosa korritzeko aukera izan zuten joan den urtean. Aurten ere «denoi dago zabalik» proba: benjamin, alebin, infantil eta nagusi mailatan sailkatu dituzte antolatzaileek korrikalariak. Koadrilei animatzeko deia egin diete, era berean; izan ere, bakarka zein taldeka (lau lagun) har daiteke parte proban.

16:00etan hasiko dira lasterketak. Alde Zaharreko kaleetan barrera osatuko dute ibilbidea korrikalariak. Izen-ematea krosaren egunean bertan izango da, 15:00etatik aurrera, Berdura plazan. Izena ematerakoan, kamisetak banatuko dizkiete parte-hartzaileei. Sari ugari ere izango dira: garaikurrak, dominak eta kamisetak umeentzat eta gazeentzat, eta saskiak eta afariak nagusientzat.

# VII. San Silvestre-Elkartasun Krosa aurkeztu dute

Hilaren 31n, 16:00etan hasiko dira lasterketak; irteeran eta helmugan jasotako dirua Indiarra bidaliko dute



Ekzerretik hasita, Anate Iturralde Igarondo merkatarien elkarteko ordezkarria, Asier Bakaikoa Udaleko kirol teknikaria eta Kike Mokoroa Samaniego-Orixe kirol koordinatzailea. LEIRE MONTES

Festa kutsurik ere ez da falta izango: krosak irauten duen bitartean musikak alaituko du giroa; eta, bukaeran, txokolata

banatuko dute. Elkartasun Kros honetan jasotako dirua Indiarra bidaliko dute, San Bartolome Misio taldearen eta Cal-

cuta Ondoan Gobernuz Kanpoko Erakundearen (GKE) bidez. Irteeran eta helmugan diru bilketa egingo dute horretarako.

### HAINBAT DATU ▶

**Proba.** VII. San Silvestre-Elkartasun Krosa.

**Antolatzaileak.** Samaniego-Orixe Kirol Eskola, Tolosako Udalaren, Tolosa hiri komertzialaren, Igarondo merkatarien elkartearen, Tolosa CFren eta beste hainbat laguntzaileekin batera.

**Eguna.** Hilaren 31, ostirala. **Izen-ematea.** Egunean bertan, 15:00etatik aurrera. Lasterketak 16:00etan hasiko dira.

**Mailak eta probak.**

- ▶ 16:00: benjamin neskek.
- ▶ 16:15: benjamin mutilak.
- ▶ 16:30: alebin neskek.
- ▶ 16:45: alebin mutilak.
- ▶ 17:00-18:30: sari banaketa, mailaka.

**Sariak.**

▶ Benjaminak, alebinak eta infantilak: lehenengoari garaikurra; Samaniego-Orixe ikastetxeko lehenenari garaikurra; lasterketa bakoitzeko lehendabiziko hamarrei dominak; eta parte-hartzaile guztiei kamisetak.

▶ Nagusiak: lehenengo neska eta mutilari Gabonetako saskiak; bakarkako partaideen artean hiru afariren zozketa (bi lagunentzat); taldekako partaideen artean hiru afariren zozketa (lau lagunentzat); eta parte-hartzaile guztiei kamisetak.

**Diru bilketa.** Irteeran eta helmugan egingo dute diru bilketa. Jasotakoa Indiarra bidaliko dute, San Bartolome Misio Taldearen eta Calcuta Ondoan Gobernuz Kanpoko Erakundearen (GKE) bidez.

**Beti nahi jatetxea**  
Garaian garaiko janariak  
Arraikietan berezia

© 943 67 33 81 / 943 67 19 20 • Erremerterri kalea, 16 • 20400 TOLOSA

**Estetika zuzendua**  
**Pilar Goya GUANABANA**  
Nagusiak: Pilar Goya  
Nagusiak: Pilar Goya  
Nagusiak: Pilar Goya  
Nagusiak: Pilar Goya  
Nagusiak: Pilar Goya  
Nagusiak: Pilar Goya



GABONAK ▶



Olentzero, atzo, Tolosan. HITZA

**Postal berriak ekarriko ditu Olentzerok aurtengoan**

Gabonetako kanpaina abiarazteko, material berria atera du Tolosa Hiri Komertzialak

I. ETXEBESTE

Tolosa Hiri Komertzialak jarrri du honezkerok abian aurtengo Eguberrietako kanpaina, eta horren harira, eranskailu eta postal berriak ekarriko ditu Olentzerok Tolosara. Atzo egin zuen lehendabiziko agerraldia herrian, haurrei oparitzoak emanez. Hilaren 23a bitarte kalez kale ariko da Gabonetako kanpainako Olentzero, bere adiskideen laguntzarekin, kalean aurkitzen dituen haurrei globoak, postalak eta eranskailuak herritarrei banatzen.

Opariak eskatzeko gutuntzako ontzia eskuratu nahi duten dendariei deialdia egin nahi diete Tolosa Hiri Komertzialeko arduradunek, eta ontziak udaletxean jaso ahal izango dituztela iragarri dute. Egunero, 08:00ak eta 14:00ak bitartean jaso ahal izango dituzte hala eskatzen duten dendariak bertan.

KIROL ASTEA ▶

**Automobilismoa eta bela, Kirol Asterako**

Hilaren 20ean hasi eta 23ra arte izango den Kirol Astearen baitan hitzaldiak eskainiko dituzte kirolari ezagunek herrian

IRATXE ETXEBESTE

Iaztik Gabon egunen inguruan egiten duen moduan, Kirol Astea antolatu du Tolosako Udaleko Kirol departamentuak datorren asterako. Egun gutxi barru hasiko den urtea, 2005a, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Nazioarteko Urtea izango dela eta garrantzia berezia eman diete antolatzaileek aurtengo Kirol Asteari. «Orain arteko guztiak kirola bultzatzeko, eta, bide batez, kirolari merezi duen garrantzia emateko antolatu izan ditugu, baina oraingoa indar berezia eman nahi diogu Kirol Asteari, eta eskualdeko eta kanpoko kirolariek egiten duten ahalegina eskertuz, bakoitzak egiten duen lanaren berri izango dugu».

Automobilismoa eta bela aukeratu dituzte antolatzaileek edizio honetan, eta kirol horietan aditu diren Ander Vilariño, Gorka Apalantza eta Iñaki Alberdi pilotuak eta Xabi Fernandez eta Iker Martinez de Lizardui regatista olinpikoak ariko dira datorren astelehenean eta asteazkenean hizlari. Gainera, eraikitzen ari diren Usabal kiroldegia arduradun Angel de la Hoz eta Cristina Fontan arkitektoek proiektuari buruz jardungo dute asteartean, herritarrek kiroldegia nondik norakoak ezagutu ditzaten. Azken egunean, ostegunean, diplomak banatuko zaizkie eskualdeko kirolariei.

Hitzaldi eta ekitaldi guztiak Tolosako Udaleko udalbatzar aretoan izango dira, astelehenean ostegunera, 19:00etan hasita. Aurten, lehendabizikoz, Tolosako ikastetxe ezberdinetako ikasleei aukera eman die-



Astelehenean hasiko da Kirol Astea; argazkian, iazko sarituak. HITZA

EGITARAUA ▶

ETZI, HILAREN 20A

**Automobilismoa.** Hitzaldia, 19:00etan, udaletxeko batzar aretoan: Ander Vilariño, Gorka Apalantza eta Iñaki Alberdi pilotuak.

ASTEARTEA, HILAREN 21A

**Usabal polikiroldegia.** Angel de la Hoz eta Cristina Fontan arkitektoek Usabal polikiroldegiko proiektuaren inguruko azalpenak emango

te antolatzaileek Kirol Astearen parte hartuko duten gonbidatuei galderak egiteko, eta gaur bertan jasoko dituzte udal arduradunek ikasleen galderak, gonbidatuek dagozkien egunetan erantzun ditzaten. Datorren ostegunean, hilak 23, Kirol

dituzte, 19:00etan, udaletxeko batzar arteoan.

ASTEAZKENA, HILAREN 22A

**Bela.** Xabier Fernandez eta Iker Martinez Munduko Bela txapeldunen solasaldia, 19:00etan, udaletxean.

OSTEGUNA, HILAREN 23A

**Diplomen banaketa.** Urteko kirolari onenei sariak, 19:00etan, udaletxean.

Astea itxiko duen diploma banaketa ekitaldian sari bat zozketatuko dute antolatzaileek kirolari gonbidatuei galderak egin dizkieten ikasleen artean, eta sari banaketa hori ere orduntxe egingo dutela iragarri dute. Zorte on, beraz.

POLITIKA ▶

**‘Orain herria, orain bakea’, gaur Leidorren**

Ezker abertzaleak Anoetako Belodromoan aurkeztutako *Orain herria, orain bakea* proposamena herriz herri azaltzeari ekin dio. Leitzan, Areson eta Villabonan aurkeztu eta gero, gaur Tolosan egingo du ekitaldia: Pemando Barrena izango da hizlari, 19:00etan, Leidorren.

HEZKUNTZA ▶

**Gabonetako jaialdiak Hirukide ikastetxean**

Gabonak direla eta ekitaldi asko antolatu dituzte Hirukide ikastetxean. Karitas eta Abegirako produktuen bilketa kanpaina ari dira egiten, eta datozen egunotaroko ere egitarau zabala prestatu dute. Asteartean jaialdia egingo dute, 15:00etan, Leidorren: *Oi Bethleem!* antzezlanak, kantak, bertsoak... HHKO 2. zikloko eta LHko ikasleei eta senideei dago zuzenduta. Eta ostegunean HHKO 1. zikloko ikaslentzako eta familientzako jaialdia egingo dute, Hirukide Gainberrin, 16:30ean.

ZESTA-PUNTA ▶

**Beotibarko gazteak, Elkarteen Arteko finalean**

Elkarteen Arteko Gipuzkoako Txapelketako sailkapen faseak amaitu dira, eta gaur jokatuko dira finalak. Andoainan, 16:30ean. Beotibar elkarteko jubenilak —Iñigo Orrantia, Mikel Mujika eta Iñaki Rezola— finalerako sailkatu dira, eta Donostia Jai Alai talde indartsua izango dute aurrean. Kadeteek, bestalde, 4. amaitu dute. Nagusietan, Beotibar 2 6. izan da, eta 9. Beotibar 1.

**HITZA** *lagunen txokoa* **‘Lagun ezazu HITZA laguntzen’**

▶ HITZARI 42 euroko diru laguntza ematen dioten harpidedunek HITZA egunero jasotzeaz gain **ABANTAILA EZBERDINAK** izango dituzte; harpidedunen txartela izango dute eta, besteak beste, HITZAK egiten dituen zozketetan parte hartzeko aukera izango dute.

▶ HITZAREN laguntzaile izan nahi baduzu, deitu **943 30 43 46** telefono zenbakira.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

## VILLABONA ▶

Gasteiz-Zubillana  
ibilaldia egingo  
dute Aizkardikoek

Euskal Herriko hiriburuek uztartuz egitasmoaren baitan, Aizkardikoek bihar egingo dute ibilaldia. Gasteiz-Zubillana izango da bidea, Bilboko norabidean. Oraindik izena eman daiteke ohiko lekuetan. Bestalde, datorren urterako federatzeko aukera ematen dute mendi elkarte-koek: ostegunetan, 21:00etatik 22:00etara, bere lekoean.

## VILLABONA-ZIZURKIL ▶

Landa-eremua  
ezagutzeko  
irteera

Jesusen Bihotza Ikastolako DBHko 3. mailako ikasleek irteera didaktikoa egin zuten Arteaga-Zabalegi Fundazio-ko Nekazal Eskolara. Ingurumenaren ezagutza eta babesa bultzatzea eta sustatzea eta landa-eremuaren ezagutza hobetzea eta berroren funtzio-aniztasuna erraztea dira nekazaritza eskola honen helburuak.



Jesusen Bihotzako ikasleak bisitaren une batean. HITZA

## ASTEASU ▶

Adineko gizon bat  
hil da auto batek  
harrapatuta

Atzo goizean adineko gizon bat hil zen Asteasun auto istripu batez. Hildakoa, D.S.G., Asteasun bizi zen. Istripua Gi-2651 errepidean gertatu da, Alkizako bideturtearen inguruan. Land Rover markako auto batek, Nafarroako matrikularekin, harrapatu zuen eta une berean hil zen, bertara joan zen sendagile batek ziurtatu zuenez

## ZIZURKIL ▶ ENPRESAK



Millau herritik gertu eraiki den zubiak zazpi zutabe nagusi ditu eta horietatik garaienak 245 metroko altuera du HITZA

## Zizurkildik Millaura

Stern Hidraulica enpresa zizurkildarrak parte hartu du garaiera markak hautsi dituen Millauko (Frantzia) zubian

## IMANOL GARCIA

Zeresana eman du ireki berri duten Millauko zubia. Eiffel dorreak zuen marka hobetu du: zubi berria da Frantziako erakirik garaiena. 343 metroko garaiera du eta luzera, berri, 2.460 metrokoa. Beste zenbaki esanguratsua, zubia eusten duten zutabeetatik garaienak duen altura da: 245 metro.

Eraikin erraldoi honen eraikuntzan Zizurkilgo Stern Hi-

draulica enpresak parte hartu du. Zubia eraikitzeke hormigoizko zazpi zutabe nagusiez gain, altzairuzko zortzi zutabe laguntzaile erabili dira. Zutabe laguntzaile hauek jasotzeko erabili den sistema hidrauliko zilindroak hornitu ditu Stern enpresak. Zutabeen gainean altzairuzko egitura duen errepidea jartzeko ere sistema hidraulikoa erabili da, hau da, altzairuzko egitura hori pixkanaka zutabeen gainean

mugarazi da. Sistema horretako zilindro hidraulikoak ere Stern enpresatik atera dira.

Hogeita hamahiru urte inguru ditu Stern enpresak. Izarra esan nahi du izenak alemanieraz. Egun bigarrenko belaunaldiak gidatzen du enpresa eta Jon Lizarribar da bertako kudeatzailea. Pozik agertu da Millauko zubiak izan duen nazioarteko oihartzunarengatik. Izan ere, datozen urteetako erroka nazioarteko merkatu-



Jon Lizarribar. I. GARCIA

ra zabaltzea da eta horrelako proiektu batean parte hartzeak enpresarentzat atek irekitzea ekar dezake.

## ASTEASU ▶

Ikus-entzunezkoa  
astelehenean  
Kultur Etxean

Trango: izenik gabeko dorea ikus-entzunezkoa izango da astelehenean, Juan Mari Iraolaren eskutik, 20:00etan, Kultur Etxean.

## ALKIZA ▶

Orkatz-txiki  
abesbatzaren  
kontzertua bihar

Zegamako Orkatz-txiki abesbatzak kontzertua eskainiko du bihar, San Martin parrokiaren, goizeko 10:30ean.

## IRURA ▶

Xake txokorako  
izen-ematea  
zabalik

Xakearen txokorako izena eman daiteke (LH1etik aurrera), hilaren 22a arte, Irurako Ikastolan edo udaletxean.

## VILLABONA ▶

‘Doraemon  
Gladiadorea’  
filma Gurean

Zinea euskaraz egitarauaren baitan, bihar, 17:00etan, *Doraemon Gladiadorea* ikusi ahalko da Gurea aretoan.

## iragarki laburrak ▶

**Vital Kutxa.** 70 lanpostu libre. Sarrerak laster. Matrikulazio irekia. Informazioa doan. 943 65 01 93 telefonora deitu.  
**Haur Hezkuntza.** Plaza libreak

haurtzaindegi publikoetan, haur eskoletan. Informazioa doan. 943 65 01 93.  
**Gidariak.** Laster sarrerak udaletan eta Eusko Jaurlaritzan. Informazioa

doan. 943 65 01 93.  
**Sukaldari laguntzaileak.** Plaza libreak eskoletan, egoitzetan, Eusko Jaurlaritzan. 943 65 01 93 telefonora deitu.

**Administrazio laguntzaileak.** Laster sarrerak udaletxe hauetan: Hernani, Usurbil, Irun, Beasain, Altzo, Bergara, Zorrales, Mutriku, Zizurkil, Mendara, Anoeta.

Informazioa doan 943 65 01 93.  
**Peoiak.** Elektrikariak, iturginak, soldatzaileak, igeltsuak. Plaza libreak erakunde publikoetan. 943 65 01 93.

ARESO ▶ UDALA

# Kirolean nahiz ikasten ari direnentzat diru laguntzak izanen dira

Deialdi hau eskolaz kanpoko hezkuntza jardueri eta kirolean afizionatu eran ari direnei bideratuta dago



Esate baterako pilotan ari direnek ere, diru-laguntza eskaria egin dezakete, agiriak aurkeztuz gero. J. ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Aresoko Udalak diru laguntzak eskatzeko bi deialdi egin ditu oraintsu, bata kirolari dagokiona eta bestea hezkuntzari dagokiona.

Biak hala biezant abendua bukatu arterainoko epea dago eskariak egiteko, udaletxeko idazkaritzan bertan istantzia bezel.

Handik bertatik jakitera eman dutenez, aurrelehendabiziko aldiz egin dute, «gazteek afizionatu, nahiz amateur mailako kirola egiteko laguntzak»

jasotzeko deialdi horren aldeko aukera, batez ere «herrian gazteen artean badagoen kirolzaletasunari eutsi eta sustapen lana egiteko helburuz», ziotenez.

Horrela, Areson, gutxienez urte beteko aintzintasunez, errolatuta dauden 20 urte bitarteko gazteek egin dezakete kirol jarduerarako laguntza eskaera, edozein kirol dela ere egin dutena, «beti ere horretan ari dela egiaztatzen duen frogagiriaren bat aurkeztuta, dela kirol-txartela, dela ...», jakinazari dutenez. Laguntzak

urtebeterako luzapena du eta gehienez 100 euro jasoko ditu eskatzaile bakoitzak.

Eskolaz kanpoko jarduerengatik ikasleentzako laguntza ere modutsu berean ebatziko dute, kasu horretan 6-16 urte bitartekoentzat izanik eta bakoitzak eskatzen dituen kontzeptu horiei dagozkien ordainagiriak aurkeztuz gero. Deialdi hau ekaina eta abendua bitarteko gastuei dagokie eta frogatutako gastuaren %50a jasoko du onuradun bakoitzak, beti ere, gehienez, 100 euroko laguntza jasoz.

LEITZA ▶

## Torre atariko pankarta erre dute, beste behin ere

Herrian barrena jarritako beste hainbat hautsi edota desagertu egiten dira

J. ASTIBIA

Hilaren 15etik 16rako gauean, «ezezagunek», Torre tabernako atarian jarrita zegoen «Alde hemendik! Maxurrenea herrintzat» zioen pankarta erre zutela ohartu ziren eta «adierazpen askatasunaren aurkako ekintza erasotzaile berri hau» salatu zuten tabernakoek.

Ez da lehendabizikoa, ordea, gau horretako erreketak, «horrelako erasoak ez dira berriak. Hemen, nahiz etxean bertan jarritakoak, erre izan dituzte lehen ere», argitu zuten, eta herrian barrena, aldarrikapen batekin edo bestearekin jarritakoak, berriz, «haustea, edota 'desagertzea' ere nahiko ohiko bihurtzen ari da azken bolada honetan», zioten.

«Ezezagun' horiei, non-bait, traba egiten die, herritarrok egiten ditugun eskaerak erabat begien bistan izatea, aldarrikapen batzuk bereziki», nabarmendu eta «kasu honetan, gauaz baliatuz, beren espeziozko legea ezarri nahi dute», erantsi zuten.

Erreketak hau «Euskal Herriak jasaten duen mota gutzietako eskubideen urraketaren beste eredu bat besterik ez da, bai erreketak bera, bai aldarriak berak zioenarengatik», iritzi zuten.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIK

▶ 112

**Alegialdea.** Osasun z.: 653212  
**Anoetaledea.** Medikua: 65 23 39  
**Asteasu.** Medikua: 69 24 23  
**Berastegi-Elduain.** 68 33 61  
**Bidegoian.** Medikua: 68 11 34  
**Ibarralde.** Osasun etx.: 672411  
**Ikaztegieta.** Medikua: 65 33 29  
**Irura.** Osasun zentroa: 69 07 20  
**Leitza.** Osasun z.: 948 510800  
**Lizartza.** Medikua: 68 20 77  
**Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111  
▶ San Esteban: 00 68 00  
▶ Gernikako arbola: 00 69 00  
▶ Asunzion klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdia)  
▶ Udaltzaingoa: 67 58 58  
▶ DYA: 67 25 36  
▶ Gurutze Gorria: 67 48 88  
▶ Ertzaintza: 53 88 20

**Villabona-Aitzondo.**

Anbulatorioa: 00 69 70  
**Zizurkil.** Aitzondo zerb.: 693930

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89  
▶ Donostiako autobusa: 36 17 40  
▶ Taxia: 67 04 20  
▶ Taxia (Leitza): 608 873016

EUSKALTEGIK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06  
▶ Arramele-AEK: 67 12 14  
▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIAK

**Gaur.** Bronte. Korreo kalea 20 (Tolosa). 943 67 60 13.  
Larraia M.I. Elbarren 95 (Leitza). 112

TOLOSALDEKO HITZA

**Publizitatea.** 661 67 88 18.  
tolosaldean\_publici@tolosaldeko-hitza.info  
**Tolosa.** 687 41 00 82 - 687 41 00 33.  
tolosa@tolosaldeko-hitza.info  
**Villabona-Aitz.** 687 41 00 22.  
villabona-aitzondo@tolosaldeko-hitza.info  
**Anoetaledea.** 687 41 00 22  
anoetaldea@tolosaldeko-hitza.info  
**Ibarralde.** 687 41 00 32.  
ibarralde@tolosaldeko-hitza.info  
**Alegialdea.** 687 41 00 34.  
alegialdea@tolosaldeko-hitza.info  
**Leitzalde.** 687 41 01 18.  
leitzalde@tolosaldeko-hitza.info

EUSKARA ▶

## EHE-en ekitaldia Anaitasun 25. urteurrenean

Gaur, 18:00etatik aurrera, Iruñeko Anaitasuna kiroldegian, 25. urteurreneko ekitaldi nagusia burutuko du Euskal Herrian Euskaraz-ek. Bertan urte hauen gutzien bilakaerari erreparatu eta «aitzinerateko norabideaz sakondu» nahi dute eta euskalgintzako eragile gutzietan bertara joateko gonbitea egin diete. Imuntzo eta Beloki eta Anje Duhalde ere han izanen dira giro alaituz.

LEITZA ▶

## Aurrerak Lekunberrin du partidua gaur

Beti Kozkor taldearen aurka du partidua Aurrerak, gaur arratsaldean bertan jokatu dena, 15:45etik aurrera eta Lekunberrin. Horrela bada, ligako bigarren itzulierikinen diote asteburu honetako jardunaldiarekin eta taldekoen esanetan, «derbi kutsua duen» partiduarekin egingen ere, elkar ongi ezagutzen baitute bi taldeok, han ari diren jokalaririk batzuk bertakoak izaki.

LEITZA ▶

## Orantzarori ongi etorriko kantuen entsaioak

Denok bat guraso elkartek, herriko ume eta gaztetxoeri dei egin diete Orantzarori ongietorria egiteko, eguberri-kantuen prestaketa saioetara joateko. Horretarako bi saio egingen dituzte: bata, gaur bertan 12:00etan eta bigarrena, berriz, asteazken arratsaldean, 18:30ean. Nahiz duen guztia gonbidatuta dagoela adierazi dute, Aurrera elkartean egingen dituzten saioetara.

ARESO ▶

## Bidea itxita egonen da gaur, eguerdira arte

Gaurkoan bai, eskolako parean herriko sarrera-irteerako errepidea itxita egonen da goiz osoan, 8:00etan hasi eta 12:00ak aldera arte, bertako Udaletik jakitera eman dutenez. «Autoa beharrezko kasuetan soilik» erabiltzeko aholkua egin dute bertatik, eta orduan, oztoporik eragin, gabe Patzikune aldean uztekoa. Eskolako teilatuko lanak egiteko garabia jartzeko itxi behar dute bide hori.

**ARAMBURU**  
Salgai (Iruia). 100m<sup>2</sup>-ko pisua Nagusia kalean. Bajera aukeran.  
Salgai (Tolosa). Pisua handia Gorosabel 40ean. Garajea aukeran.  
Salgai (Tolosa). Pisua alua igogailuarekin Nafarroa Etorbidean. 44.000.000 pta.  
Salgai (Tolosa). Pisua igogailuarekin Larramendi kalean. 30.000.000 pta.  
Salgai (Tolosa). Lokal komertziala San Frantzisko pasealekuan 85m<sup>2</sup>.  
Alokatzeko (Tolosa). Lokal komertziala Erementari kalean.  
Alokatzeko (Tolosa). Garajeak alokatzen dira Tolosako leku ezberdinetan.  
943 65 17 13 / 677 46 09 16

Harpidedunei banatua ▶ 2004ko abenduaren 18a, larunbata ▶ II. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN  
DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Kuartzesketa, Adura, Abotzu, Alegia, Alkiza, Alzco, Amerieta, Anoeta, Bakarran, Beldantza, Berastegi, Etxain, Herrialde, Ibarra, Inura, Lantzi, Leizorri, Luartzi, Omenan, Orea, Tolosa, Villatorra, Zuzaldi  
besteriak: Leizaldeko Euskara Batzordea

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

Eusko  
Jaureritza  
Kultura Salla

943  
ARRETA ZENBAKIA  
(zalantzak, harpide egiteko...)

GAURKO  
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

14

hotzena

12

BIHARKO  
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



ELURRA  
ARALAREN



Guardetxe:

gaur: ez / bihar: ez

Pagomari:

gaur: ez / bihar: ez

## AGENDA ▶

### DEIALDIAK

**Alegia.** Tearto taldeak *El filling es asi* antzezlanaren taularatuko du Gaztetxean. bihar 19:00etan. 17. urteurrenoko ekitaldien baitan kokatzen da.

**Baliarrain.** Gabon kanten entsegua 21:00etan Kultur Gelan. Ondoren Jai Batzordearen aldatketa.

**Ibarra.** Gaztetxearen Kultur Astearen barruan, bizikleta martxa Gaztelura, 10:30ean abiatuta. Bazkaria bertan.

**Ibarra.** Kirmen Uriberen poesia errezitaldia Gaztetxean bihar 18:30ean.

**Leitza.** *Ezetz lepoa jarri* komedia. 19:00etan zineman.

**Tolosa.** Eguberrietako azoka berezia 08:00etatik 19:00etara.

**Tolosa.** *Apartheid-en* aurkako bilkura Tolosa Bizirik-ek deituta 12:00etan plaza Zaharrean.

**Tolosa.** *Orain herria, orain bakea* proposamenaren aurkezpena. Fernando Barrena. 19:00etan Leidor zineman.

**Tolosa.** *Kornerra* Goiko Irratian (107 FM) 13:00etan.

**Tolosa.** 16:30etik 20:30era Gazte Topagunea Kultur Etxean.

**Tolosa.** Bonberenearen V. urtemugako bazkari herrikoia; Petxe dantza taldearen saioa eta txarangaren kalejira.

### MUSIKA

**Amezketza.** *Aldana ingoa* lelopean ekitaldi ugari antolatuta ditu Gazte Taldeak; 18:00etan, Talai eta jaietako bideoa; 19:30ean, poteoa; 20:30ean, zahagi-sagardoa eta 22:30an, lau talderen kontzertua.


**Tolosa.** Josu Okiñena pianojoleak eta Razvan Suma biolontxelojole errumaniarra 20:00etan Casino elkarteko aretoan. Sarrera doan izango da.

**Tolosa.** Musika Eskolako ikasleen kontzertua. Etzi, astelehena, 20:00etan musika eskolako aretoan.

### ZINEMA

**Tolosa.** *El Lobo.* 22:30ean Leidor zineman.

**Villabona.** *Doraemon gladiadorea.* Bihar 17:00etan Gurean.



Anoeta. Elizan egindako kontzertuaren une bat. I. GARCIA



Altzo. Txikienek abesbatza txiki bat osatu zuten. HITZA

# Gabonei musika darie

**TOLOSALDEA ▶** Loatzo musika eskolako ikasleak eskualdeko herrietan Gabonetako kontzertuak ari dira ematen; aste honetan, Irura, Altzo eta Anoetan



Irura. Loatzoko ikasle irurarrek herriko elizan eskaini zuten kontzertua. I. GARCIA

IMANOL GARCIA

**G**abonek musikarekin harreman berezia dute. Garrai hauetan denori ateratzen zaio kanturako gogo, kanpoan egiten duen hotzari barruko ahotsaren goxotasunarekin aurre egiteko edo. Loatzo musika eskolako ikasleek bere herrietan Gabonetako emanaldiak eskaini dituzte. Horrela, aste honetan, Iruran, Altzon eta Anoetan kontzertuak eman dituzte, bai instrumentuekin, bai beren ahotsekin, ikusle gozamenenerako. Batez ere, musikari hasi berrien gurasoentzako.

### ZORION AGURRAK ▶



**URTE ASKOAN**

Martin Intxaurrendi Mujika  
(Berastegi). Gaur 4 urte. Zorionak  
Berastegi eta Zegamako familiaren partetik.



**URTE ASKOAN**

Kontxi Zuriarrain (Ibarra).  
Zorionak eta urte askotarako!  
Familiaren partetik.



**URTE ASKOAN**

Elorri Etxabeguren (Ibarra). Gaur urtebete.  
Zorionak eta muku handi bat.



**URTE ASKOAN**

Oihan Calahorra Murua.  
Gaur urtebete!  
Zorionak eta muku handi bat.



**URTE ASKOAN**

Alain. Gaur urteak  
betetzen ditu. Maitasunez,  
ebekoaren partetik.

**HITZA,**  
zorion agurren  
tartea

HITZAren egoitzetara:  
Araba etorbidea, 5 behea  
TOLOSAN  
Udaletxeko bulegoa  
LEITZA

Mesedez, argazkia bi  
egun lehenago ekarri.  
Mila esker!

**ZUTE**  
ILEAPAIWDEGIA  
843 67 14 27  
SANTA KLARA S. TOLOSAN